—Nekazaritza eta abelazkuntzako ustiapenak era horretako eraikin bat behar duela justifikatu beharko da. Eta horretarako, Gipuzkoako Foru Aldundian nekazaritza gaietan eskumena duen Departamentuaren aldeko bideragarritasun-informea aurkeztu beharko da.

Baldintza horiek guztiak bete ondoren, honako eraikuntza parametroak aplikatuko dira:

—Eraikina hartuko duen lurzatiak 10.000 m<sup>2</sup>-ko azalera izango du gutxienez. Ustiategiari lotutako eremuak 50.000 m<sup>2</sup>-ko azalera izango du gutxienez. Horietatik 10.000 m<sup>2</sup> (lurzati hartzailea) nekazaritza eta abelazkuntzako erreserbarako lur eremu hiritarrezinean eta babes bereziko nekazaritza eta abelazkuntzako zonan egon beharko dute; gainerakoa, lur eremu hiritarrezin arruntan egon daiteke. Jarduketa berriren bati ekitekotan, gutxienez 800 metroko tartea utziko da ustiategiari lotutako eremuaren eta jarduera hartuko duen lurzatiaren artean.

—Etxebizitza bakarreko baserri berrietan 540 m<sup>2</sup>-ko azalera eraiki ahal izango da gehienez; eta bi etxebizitza hartuko dituzten baserrietan, berriz, 675 m<sup>2</sup>. (Estalkipeko eremua ere azalera eraiki horren barruan konputatuko da eta, eremu horrek, araudi honen 117. artikuluan ezarritakoa beteko du). Azalera eraiki horren barruan konputatuko dira bai egoitza erabilerarako aurreikusitako eremua baita nekazaritza eta abelazkuntzako jarduerari lotutako erabilerak hartuko dituen azalera ere). Halaber, gehienez ere eraikitako azalera osoaren %50 bideratu ahal izango da egoitza erabilerara.



**Oñatiko Udala**

—Lurzati hartzaileak lehengo sarbideren baten mugan egon beharko du eta gutxienez 50 metroko luzeran herribideren batera eman beharko du (distantzia hori bidearekin muga eginez eta berorren paraleloan egongo den lurzatiaren mugatik 10 metrora hasita neurtuko da).

—Eraikin berriak gutxienez 150 metroko distantzia utziko du lehendik dauden eraikinetara. Mugetara 10 metroko tartea utziko da. Babestutako ibai ibilguaren gehieneko kotara 20 metroko tartea utziko da.

—Egoitzarako eraikin bakar bat egin ahal izango da eta horretan 2 etxebizitza egingo dira gehienera.

Hiritartze lan osagarriak jasoko dituen Eraikuntza proiektua aurkeztu beharko da. Era berean, behar beste ur erabilgarri izango dela erakutsi beharko da agirien bidez. Hornidura hori udal saretik edo hartune propiotik egin ahal izango da baina betiere, egun eta biztanle bakoitzeko gutxienez 200 litro bermatuko diren moduan. Horrez gain, argindarraren hartunea ere beharko da, hondakin uren eta ur beltzen arazketa sistema egokia bezalaxe.

Nolanahi ere, eraikuntzarako sarbideak eta zerbitzuen hornidura (ura, argindarra, telekomunikazioak, saneamendua, ur beltzen arazketa, eta abar) sustatzailearen kontura gauzatuko dira eta Eraikuntza proiektuan behar bezala adieraziko dira.

1B. Lehendik dauden baserriak eraberritu, birgaitu eta handitzea:

Oro har, lehendik zutik dauden eta dokumentu honetako<sup>64</sup>. artikuluan aipatu diren baserri guztiak kontserbatu beharreko elementutzat hartu dira, balio historiko handia baitute eta, zenbaitetan, baita balio arkitektonikoa ere. Horregatik, orain dauden elementu guztiak birgaitzeko baimena emango da, nekazaritza eta abelazkuntzako ustiapenak izan ala ez; hau da, ustiapena izateko behar beste lursail badituzten begiratu gabe, alegia.

Era berean, irizpide orokor gisa, baserria eraberritzeko, birgaitzeko edo handitzeko burutzen den obra orotan, honako baldintza hauek errespetatuko dira:

—Kanpoko elementuetan eragina duten obrak: Jatorrizko baserriaren kanpoaldeko itxura mantenduko da bolumen, estalki, atal eta elementu irtenkari, fatxadako bao eta abarren osaketan. Eraikinak izan ditzakeen balio bereziko elementu arkitektoniko eta artistiko guztiak mantenduko dira, eraikinaren kanpoaldean zein barruan; esate baterako, armariak, ate eta leihoburuak, estalkiaren teilategalak eta abar. Halaber, eraikinaren egituraren oinarritzko elementuak ere mantendu egingo dira, hala nola bi familiako baserrien tarteko hormak, sarrerako arkupe eta atari-aurreak eta gainerako elementu interesgarri guztiak. Eraikin nagusiari kendu egingo zaizkio erabiltzen ez diren edota jatorrizko baserriaren itxura kaltetzen duten eranskin, teilape, silo eta gainerako elementuak. Era berean, elementu eta material desegokiak lehengoratzen saiatu beharko da, elementu horien ezaugarri fisikoak eta funtzionalak aintzat hartuz,





**Oñatiko Udala**

betiere. Eraikinen kanpoaldean, honako Arau hauetan zehaztutako materialak erabiliko dira eta horiek, lehendik erabilitakoekin bateragarriak izango dira.

—Gehieneko etxebizitza kopurua: Baserriko eraikin eraberrituak edo handituak gehienez ere bi etxebizitza har ditzake. Eraikita daudenean, nekazaritzako ustiapenari loturik eta ustiapen horretatik bananezin gisa inskribatuko dira Jabetza Erregistroan, baldin eta baserria osatzen duten lursail guztiak bi sailetan banatzeko modukoak ez badira behintzat eta horrela, sail horietako bakoitza baserriko bakoitzeko ustiapen izan daitekeela justifikatzen ez bada. Horrelakorik gertatuz gero, etxebizitza horietako bakoitza ondorioztatzen den ustiapen bati lotu ahal izango zaio, baldin eta bien muga erdi-erdian badago; hau da, baserria bertikalki banatua badago.

—Oraingo eraikinen handitze lanak, duten erabileraren aldaketa bultzatzeko xedez planteatu daitezke; eta baita lerrokadurak erregularizatzeko eta eraikitako bolumena inguruneari hobeto egokitzearen ere. Handitze lanak eraikin nagusian guztira eraikitako azaleraren %20an egin ahal izango dira; baita eranskin desegokiak ezabatu ondoren, horiek utzitako azalera ere.

#### 1C. Nekazaritza eta abelazkuntzako ustiategien eranskinak:

Ustiategiaren instalazio eta eraikuntza osagarriak egin ahal izango dira; esate baterako, ukui luak, gortak, lastategiak eta siloak. Baserriak eraikin tradizionalak izanez gero (karga-hormak, silarrria, eta abar) etxebizitza edo etxebizitzak horietan integratuko dira, betiere baserrien jatorrizko itxura bistan utziz. Eranskinak aparteko eraikinetan egin beharko dira.

Baserri berrien Eraikuntza proiektuetan eta eraikin ez-tradizionaletan (karga-hormarik, silarririk eta antzekorik gabeak) eranskinak eraikin nagusiaz aparte edota eraikin horretan bertan integratuak egin ahal izango dira. Era berean, eranskinak eraikin nagusiari atxikita egin daitezke, multzo osoarekin bat etorriko duten moduan egituratuz.

Eranskinak aparte egitekotan, honako baldintzak beteko dira:

—Eraikin nagusiarekin osatuko den multzo osoaren proiektua aurkeztu beharko da eta proiektu horretan, bien arteko txertaketa adieraziko da osaketa, baeen antolaera eta emango zaien tratamendua finkatuz.

—Eraikin nagusiaren eta eranskinaren artean 6,00 metroko tartea utziko da gutxienez, 30,00 metro baino gehiago urrundu gabe.

Eranskinak eraikin nagusiari atxikitzen bazaizkio, jatorrizko baserriaren osaketa itxuraldatuko ez den moduan egingo da. Eraikinari atxikitako atalen altuerak ez du gaitutako baserriaren batez besteko altuera; eta oinean, jatorrizko baserriak oinean hartzen duen azaleraren %50 okupatuko du gehienez, eraikin nagusiak gehienera okupa dezakeen azalera uneoro errespetatuz.



## Oñatiko Udala

### 2. Bordak:

Borda esatean, abelazkuntza estentsiboaren aldi baterako aterpea ulertu behar da. Horrelako eraikuntzaren premia justifikatu egin beharko da derrigorrez. Borda egitekotan, 58. artikuluan aipatutako materialak erabiliko dira.

Honako hirigintza parametroak aplikatuko dira:

—Lurzatiak 10.000 m<sup>2</sup>-ko azalera izango du gutxienez eta erregistroan ez da lotetsi beharrik izango.

—Eraikinak 70 m<sup>2</sup>-ko azalera okupatuko du gehienez. Atari-aurrek ez dira horretan sartuko, horien azalera ez baita konputatuko. Hiri Antolaketako Arauetan ezarritako oin motari jarraituko zaio, aurkezten diren proiektuak Arau horietara egokitu beharko baitira.

—Gutxienez 10,00 metroko tartea utziko da ekarpeneko lurzatiaren mugara; eta 200,00 metrokoa, lehendik zegoen eraikinera.

—Teilategal horizontalek 2,80 metroko altuera izango dute gehienez. Eraikuntzak, edozein kasutan ere, gehienez ere 3,50 metroko altuera izango du lursailaren punturik baxuenean neurtuta.

—Debekatuta dago eraikuntza hori etxebizitza iraunkor gisa erabiltzeko bidea eman ditzaketan zerbitzuak ezartzea. Era berean, osasun-instalazio egokiak izango ditu, hobi septikoaren bidez egindako arazketa sistemaz horniturik.

### 3. Mendiko aterpeak:

Lehendik dauden mendiko aterpeak izan ezik, gainerakoak jabetza publikokoak izango dira. Beraz, Udalak eraikiko ditu herri lurretan. Atari-aurre irekia izango dute, eta materialei nahiz kanpoko itxurari buruz ezarritako baldintzak beteko dituzte.

### 4. Txabolak:

Halakotzat hartzen dira nekazaritzako lanabesak gordetzeko eraikuntza lagungarriak. Gutxieneko lurzati laboragarriari (baratzea) lotetsita egongo dira eta ez dira aterpetxe gisa erabiliko, ezta abereak hazteko ere. Ez dute izango, inolaz ere, ez argindar hornidurarik, ez osasun instalaziorik, ez sukalde eta ez antzekorik. Estalkia egiteko teila erabiliko da eta fatxadak, eraikuntzan ohikoan erabiltzen diren materialez egingo dira, bestetan desegindako materialak baztertuz.

Txabolak egiteko honako hirigintza parametroak aplikatuko dira:

—Lurzatiak 1.000 m<sup>2</sup>-ko azalera izango du gutxienez eta hori, baratze gisa ustiatuko da benetan. Lurzatiak %15eko malda izango du gehienez eta ustiatzen ari dena izango da.

—Gehienez 10 m<sup>2</sup>-ko azalera okupatuko du 3,00 metroko altuera gainditu gabe. Txabola handiagoak ere egin ahal izango dira; izan ere, hasierako 1.500 m<sup>2</sup>-ko gutxieneko lurzatiari eransten zaizkion 750 m<sup>2</sup> bakoitzeko txabolaren azalerari 5 m<sup>2</sup> erantsi ahal izango zaizkio. Nolanahi ere, 40 m<sup>2</sup>-ko azalera okupatuko du gehienez.

## 5. Granjak:

Lur eremu hiritarrezinean soil-soilik ondoren zehaztuko diren baldintzak betetzen dituzten granjak edo abelazkuntzarako ustiategi intentsiboak onartuko dira: Ustiategi handiagoa egiten bada, jarduera industrializat hartuko da. Honako hirigintza parametroak aplikatuko dira:

—Lurzatiak 10.000 m<sup>2</sup>-ko azalera izango du gutxienez.

—Eraikina hartuko duen lurzatiak 2.000 m<sup>2</sup>-ko azalera izango du gutxienez. Lurzati hartzaileak lehengo sarbideren baten muga egon beharko du eta gutxienez 50 metroko luzeran herribideren batera eman beharko du (distantzia hori bidearekin muga eginez eta berorren paraleloan egongo den lurzatiaren mugatik 10 metrora hasita neurtuko da).

—Oinean gehienez okupa dezakeen azalera: 800 m<sup>2</sup>. Gehieneko azalera eraikia: 1.600 m<sup>2</sup>.

—Eraikuntzak gehienez ere 7,00 metroko altuera izango du teilategalera, lursailaren punturik baxuenean neurtuta.

—Gutxienez 10 metroko tartea utziko da mugetara. Beste edozein landa-etxebizitzara 100 metroko tartea utziko da gutxienez, granjari lotutakora izan ezik.

—Aipatutako baldintzak betetzen dituen abelazkuntzako ustiategi edo granja bat eraikitzeak ez du emango ustiapenari lotutako etxebizitza egiteko aukerarik, baldin eta granja hori ez badago baserri berria egiteko aukera izan dezakeen nekazaritza eta abelazkuntzako ustiapen bati lotua.

—Granjako kontsumorako ur hornidura udal sareaz aparte egin beharko da baldin eta Udalaren iritziz, granja hori ur hornidurako udal saretik urrun badago edota ur kopuru handia behar badu. Era berean, hondakin urak eta ur beltzak araztuko dituen sistema bat ipini beharko da derrigorrez, ustiapenaren premiei erantzuteko modukoa. Araztegi horren ezaugarriak granjaren eraikuntza proiektuan zehaztu beharko dira.

Nolanahi ere, Eusko Jaurlaritzaren 141/2004 Dekretuak, uztailaren 6koak, I. Eranskinean jasotako higiene, osasun eta ingurumen arloko baldintzak eta arau teknikoak bete beharko dituzte abelazkuntzarako ustiategiek.

#### 6. Negutegiak:

Egitura arinekoak izango dira, beira, plastiko edo antzeko materialez estaliak. Instalazio horiek honako baldintzak bete beharko dituzte:

—Lurzatiak 10.000 m<sup>2</sup>-ko azalera izango du gutxienez, baratze familiarraren barruan egiten ez badira behintzat.

—Gehienez ere 200 m<sup>2</sup>-ko azalera izango dute honako kasu hauetan izan ezik: Etxebizitza erabilera duen nekazaritza eta abelazkuntzako ustiategiak direnean, gutxienez 10.000 m<sup>2</sup>-ko lurzatian egindako baserri tradizionalak direnean edota etxebizitza erabilerarik gabeko nekazaritzako ustiategiak direnean eta horiek, dagokien apartatuan araututa badaude.

—Gutxienez 6 metroko tartea utziko da mugetara.

#### 7. Basogintzako ustiapenak:

Ez da baimenduko basogintzako ustiapenari lotutako eraikuntza berri bat bera ere.

Landaketak egiterakoan honako distantzia hauek utzi beharko dira gutxienez:

—Etxebizitza erabilerarik gabeko eraikinetara 30 metro.

—Etxebizitza erabilera duten gainerako eraikinetara 60 metro.

#### 8. Nekazal turismoa eta antzekoak:

Nekazal turismoa, 200 m<sup>2</sup>-tik gorako azalera eraikia duten baserrietan soil-soilik ezarri ahal izango da. Eraikin horiek handitu ahal izango dira, betiere lehengo baserriak handitzeko baldintzei buruzko apartatuan ezarri diren gehieneko mugak errespetatzen badira. Era berean, lehendik dauden baserriak eraberritu, birgaitu edo handitzeko ezarri diren baldintzak errespetatuz jardungo da beti.

Gehienez ere 12 ohe ipini ahal izango dira eta eraikitako 50 m<sup>2</sup> bakoitzeko aparkaleku bat prestatu beharko da, behar bezala hiritartu eta zolatua. Lurzati osoa hiritartu edo lorategi moduan tratatuko da, soropila ereinez eta, ahal dela behintzat, zuhaitz hostozabalak landatuz. Zuhaitz horien erdien ordean, apaindurazko koniferoak onartuko dira.



Bestetik, turismo ostaturako establezimenduek maiatzaren 28ko 128/1996 Dekretuak, turismo ostatuak arautzen dituenak, II Kapituluaren ezarritako xedapenak bete beharko dituzte, berori aldatzen duen 210/1997 Dekretuaren ezarritakoak bezalaxe.

#### 9. Sagardotegiak eta antzekoak:

Sagardotegia, hau da, sagardoa egin eta jendeari saltzen zaion establezimendua soil-soilik lehendik dauden baserrietan edota 200 m<sup>2</sup>-tik gorako azalera eraikia duten baserri berrietan ezarri ahal izango da.

Lehendik dauden baserri horiek handitu ahal izango dira, betiere lehengo baserriak handitzeko baldintzei buruzko apartatuan ezarri diren gehieneko azalera- mugak errespetatzen badira. Era berean, lehendik dauden baserriak eraberritu, birgaitu edo handitzeko ezarri diren baldintzak errespetatuz jardungo da beti.

Sagardotegia baserri berrian ezarriko bada, horrelako jarduketei buruz ezarritako dauden eraikuntza-parametroak aplikatuko dira. Edozein kasutan ere, sagardotegia nekazaritza eta abelazkuntzako erabilerarekin batera edo berorren ordean garatu ahal izango da, ezarritako eraikuntza baldintza orokorrekin bat etorriz.

Halaber, eraikitako 20 m<sup>2</sup> bakoitzeko aparkaleku bat prestatu beharko da, behar bezala hiritartu eta zolatua. Establezimendu horietarako sarbideak antolatu egin beharko dira, gutxienez araudi honetan ezarritako dimentsioak emanez. Halaber, indarrean dagoen Gipuzkoako Errepideen eta Bideen Foru Arauan ezarritako xedapenak ere bete beharko dira, berori aplikagarria den kasuetan.

#### 10. Turismoko kanpamenduak:

Soil-soilik kanpalekuen premia kolektiboari erantzuteko xedez egindako eraikuntzak onartuko dira; hau da, gainerako eraikin guztiak debekatuta daude, baita garraiagarriak izan arren horretarako baliabide bereziak eskatzen dituztenak ere (mobil home delakoak, esate baterako).

Instalazio horiek Eusko Jaurlaritzaren Kanpin Legea beteko dute. Honako hirigintza parametroak aplikatuko dira:

—Lurzati hartzaileak 20.000 m<sup>2</sup>-ko azalera izango du gutxienez.

—Lurzati hartzaileak lehengo sarbideren baten mugan egon beharko du eta gutxienez 50 metroko luzeran herribideren batera eman beharko du (distantzia hori bidearekin muga eginez eta berorren paraleloan egongo den lurzatiaren mugatik 10 metrora hasita neurtuko da).

—Gehieneko azalera eraikia: 675 m<sup>2</sup>.



**Oñatiko Udala**

—Eraikuntzak gehienez okupa dezakeen azalera: %2.

—Gutxienez 10 metroko tartea utziko da mugetara. Babestutako ibai ibilguaren gehieneko kotara 30 metroko tartea utziko da.

—Teilategak 7,00 metroko altuera hartuko du gehienez sarrerako fatxadan, eta 9,00 metrokoa fatxadarik garaienean. Altuera horrek, bi solairu eraikitzeko aukera ematen du.

11. Herriaren onurako eta gizartearen intereseko ekipamendu eta instalazioak:

Herriaren onurako eta gizartearen intereseko ekipamendu, instalazio eta azpiegiturak hartuko dituzten eraikinek hirigintza legerian berariaz ezarritako prozedurari eutsiko diote; eta, edozein kasutan ere, honako parametroak beteko dituzte:

—Lurzati eraikigarriak 100 m<sup>2</sup>-ko azalera izango du gutxienez.

—Eraikuntzak, lurzatiaren %10 okupa dezake gehienez.

—Eraikuntzaren gehieneko profila beheko oina eta goi-oin batekoa izango da.

—Gutxienez 10 metroko tartea utziko da mugetara. Gutxienez 10 metroko tartea utziko da bidearen zabalunearen ertzera. Gutxienez 100 metroko tartea utziko da etxebizitzara.

—Gutxienez aparkaleku bat aurreikusi beharko da eraikitako 100 m<sup>2</sup> bakoitzeko.

Halaber, kokatu beharreko instalazioa Udalaren iritziz oso konplexua denean, Plan Berezia erredaktatu beharko da; eta Plan horretan zehaztuko dira, besteak beste, kokatu beharreko elementu guztiak, ibilgailuentzako aurreikusi diren sarbideak eta aparkalekuak, hartu beharreko babes neurriak, instalazioa ingurunean txertatuko dela bermatzen duten neurriak eta abar. Eta, kokatu beharreko ekipamendu edo instalazioaren gehieneko solairu estalgarria ere mugatu ahal izango da, baldin eta neurri hori komenigarria dela frogatzen bada.

12. Golf zelaia:

Hiri Antolaketako Arauen dokumentu honetan Golf Zelaia aurreikusi da, Kirol Ekipamendurako Sistema Orokor gisa kalifikatua hain zuzen. Zelai hori Saihesbidearen bigarren faserako aurreikusita dagoen trazaduraren ekialdean kokatuko da, Auntzola inguruan, gutxi gorabehera 80 hektareako azalera hartuz.

Golf zelaira bideratuko den esparruaren erabilera erregimena, dokumentu honek zehaztutako Kirol Ekipamendurako Sistema Orokorragi dagokiona izango da. Era berean, eremu horretan lekutu beharreko eraikinek 800 m<sup>2</sup>-ko azalera eraikia izango dute gehienez eta soil-soilik aipatu erabilerekin bateragarriak izango dira.



**Oñatiko Udala**

Eraikin horiek, honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

—Eraikuntzaren gehieneko profila beheko oina eta goi-oin batekoa izango da.

—Gutxienez 10 metroko tartea utziko da mugetara. Gutxienez 10 metroko tartea utziko da bidearen zabalunearen ertzera. Gutxienez 100 metroko tartea utziko da etxebizitzara.

—Gutxienez aparkaleku bat aurreikusi beharko da eraikitako 100 m<sup>2</sup> bakoitzeko.

Halaber, aurrez Plan Berezia erredaktatu beharko da; eta, adierazitako zehaztapenez gain, Plan horretan zehaztuko dira, besteak beste, kokatu beharreko elementu guztiak, ibilgailuentzako aurreikusi diren sarbideak eta aparkalekuak, hartu beharreko babes neurriak eta instalazioa ingurunean txertatuko dela bermatzen duten neurriak.

### 13. Herrilanekin lotutako erabilerak:

Halakotzat hartzen dira komunikazio sistemak ustiatzeko eta artatzeko beharrezkoak diren erabilerak eta eraikuntza osagarriak. Errepideen kasuan, horietan sartzen dira zerbitzuguneak eta zerbitzuen azpiegiturak (ur hornidura, saneamendu sarea, hondakin urez arazketa, gas eta argindarraren hornidura eta telekomunikazioak), ezinbestez landa ingurunean ezarri behar direnak, baldin eta erabilera ezarriko de esparrua berriaz herri onurako eremu gisa definituta ez badago behintzat.

Eraikuntzarako lizentzia eskatu aurretik bidezko kontsulta egingo zaio Udalari eta honek, behar beste arrazoiutako ebazpenean finkatuko ditu ekarpeneko lurzatiak bete beharreko baldintzak, eraikigarritasuna eta bermatu beharreko aparkaleku hornidura, eta abar. Gainera, aparteko kasuren batean, Plan Berezia erredaktatzea eska dezake.

### 14. Erauzketak (Harrobia):

Erauzketa erabilerei ekin ahal izateko, gai honetan eskumena duten erakundeen baimena eskuratu beharko da lizentzia eskatu aurretik. Baimen hori tramitatzeari dagokionez, Euskal Herriko Ingurumena Babesteko Lege Orokorrari, otsailaren 27ko 3/1998 Legeari, lotutako jardueratzat hartuko dira erauzketak; eta, indarrean dagoen legerian xedatutakoari jarraituz, ingurumen eraginaren ebaluazio-azterketa egin beharko da.

Erauzketak ezartzeko proiektuak, aplika dakioken legeria sektorialak ezarritako betekizunaz gain, honako baldintza hauek bete beharko ditu:

—Erauzketaren eraginpeko esparrua, erauzketaren bolumena eta erauzketa gauzatzeko era definituko ditu; eta gainera, ukitutako lurraldeari geratuko zaion egitura adieraziko du.

—Zein produktu aterako diren eta produktu horiek non merkaturatuko diren zehaztuko du, horien garraioak gehien afektatuko dituen bide-zatiak adieraziz.

—Ustiapenaren drainatze arazoak konpontzeko sistemarik egokiena aztertuko du, ondoko finketan edota bide sare publikoan –errepideak edo bideak– kalterik ez dela eragingo ziurtatuko den moduan.

—Egindako ingurumen eraginaren aitortzean ezarritakoarekin bat etorriz, ustiapenak irauten duen bitartean ingurumen eragina arintzeko hartuko diren neurriak zehaztuko ditu –zuhaitz landaketa, ustiategiaren sarreran bide sare publikoa artatzeko eta garbi edukitzeko hartuko diren neurriak, hauts eta hondakin jaulkipenak gutxienez muga onargarrietara murriztea eta abar–. Era berean, ukitutako eremua berreskuratzeko hartuko diren neurriak ere zehaztuko ditu.

Ustiategian honako hirigintza baldintzak bete beharko dira:

—Ustiapena garatuko den lurzatiak, ibilgailuen sarbideen eraketari buruz 43. artikuluan izaera orokorrean ezarritako baldintzak bete beharko ditu eta, ondorio horretarako, landaz bestelako erabileratzat hartuko da.

—Ekarpeneko lurzatiak 2,5 ha-ko azalera izango du gutxienez.

—Ustiapenaren mugatik hasita gutxienez 100 metroko tartea utziko da lehendik zutik dauden etxebizitzarako eraikinetara eta landakoak ez diren erabileretara; eta, 20 metroko tartea, lurzatiaren mugara.

## 2.2. KAPITULUA.ZONA DESBERDINEN BERARIAZKO ARAUAK

### *66. artikulua.Sarrera.*

Kapitulu honetan jaso dira Lur eremu Hiritarrezina osatzen duen zona bakoitzari aplikatu dakizkiokeen arau bereziak. Sistema Orokorrek hartuko dituzten zonetan aplikatu daitezkeen araudia dokumentu honetako Hirugarren Idazpuruan finkatutakoa bera da. Era berean, Arantzazu eta Arikruz alderdietako sistema orokorren hirigintza araudia, dagokien hirigintza fitxetan zehaztuta dago.

Bestetik, Euskal Herriko Autonomia Erkidegoko Zona Hezeen Lurralde Plan Sektorialean antolatutako esparrua ukitzen duen Lur eremu Hiritarrezinako zonaketa Plan horrek ezarritako kalifikaziora egokitu du esku-artean dugun dokumentu honek. Eta, plangintza orokor honek esparru horietarako proposatutako erabileren araudiari dagokionez, aipatu Lurralde Plan Sektorialak agintzen duena beteko da.





**Oñatiko Udala**

Gai horri gagozkiola, aintzat hartu dira «III Multzoa» izeneko horretan sartuta dauden beste hainbat hezegune ere, esate baterako, Artzanburuko putzua (B3G3) eta Araotz urtegia (EG10). Halaber, bi hezegune horiei dagokien eta aipatu Lurralde Plan Sektorialean jasota dauden babes zein kudeaketa neurriak jaso ditugu.

Bestetik, dokumentu honetan jaso da Aizkorri-Aratz Parkearen mugaketa eta zonakatzea ere, hasierako onespina baduen eta jendaurreko erakustaldi fasean dagoen plangintza honek (2004ko azaroaren 23ko Agindua) ezarritako xedapenak bezalaxe. Dokumentu honetan zehaztuta dago, beraz, alderdi horri dagokion erregimena (1995eko otsailaren 16ko Agindua) eta araudi horrek dioenaren arabera, organo eskudunaren aldeko informerik izan ezean behintzat, alderdi horretan ez da inolaz ere onartuko lur eremuaren errealitate fisikoa edo biologikoa alda dezaketen egintzak burutzeko balio dezakeen baimen, lizentzia edo emakidarik.

Gainera, gorago adierazi den moduan, esku-artean dugun dokumentu honek bere egiten ditu Oñatiko Hiri Antolaketako Arauen berrikuspen honetarako egin den Ingurumen Eraginaren Baterako Ebaluaketaren Azterketan jasotako xedapen eta ondorioak.

Hori horrela, akuiferoak kutsatzeko arriskua izan dezaketen alderdiak ere definitu dira, Ingurumen Eraginaren Baterako Ebaluaketa Azterketan balio interesgarrikotzat jo diren alderdiak bezalaxe (Eusko Jaurlaritzaren informean adierazitako hezeguneak, Orkatzategi-Arrikruz eta Gesaltzako ebaki sistema, eta balore naturalak iraunarazteko eta hobetzeko eremuak). Eremu horietan hartu beharreko babes eta kudeaketa neurriak, gaur egun tramitazio bidean dagoen Aizkorri-Aratz Parkeko Baliabide Naturelean Antolamendu Plangintzak ezarritakoak berak izango dira, Ingurumen Eraginaren Ebaluaketari buruzko behin betiko informean adierazitako baldintzen arabera, betiere.

### 2.2.1 ATALA.Baso Erreserbarako Zonari Buruzko Arauak

#### *67. artikulua.Aplikazio eremua.*

Baso Erreserbarako izendatu den zonak honakoak hartzen ditu: Satui mendilerroko gailurrak eta Aloña mendilerroko eta Orkatzategiko iparraldeko mendi-hegalak.

#### *68. artikulua.Baimendutako eraikinak.*

Oraingo erabilerak eta landaketak mantentzea proposatzen da, lehendik dauden baserrietako eraikinekin batera. Hala ere, ustiapen berriak ezartzeko aukera ere aurreikusi da.

Berriaz debekatuta dago granjak eta txabolak eraikitzea baina, aitzitik, 65. artikuluan araututako mendi aterpeak baimenduko dira. Halaber, isurketa kutsatzaileak ere galarazita daude, akuiferoak baitaude inguruotan.

Arreta berezia izango da pistak irekitzeko unean, eta bakar-bakarrik baso ustiapenerako ezinbestekoak direnak baimenduko dira, %10eko malda gainditu gabe. Horrelakoak egiteko, udal lizentzia beharko da ezinbestez.

#### 2.2.2 ATALA. Nekazaritza eta Abelazkuntza Erreserbarako Zonari Buruzko Arauak

##### *69. artikulua. Aplikazio eremua.*

Nekazaritza eta abelazkuntza Erreserbarako izendatu den zonak, Oñati ibaiaren arroa hartzen du, ibarraren behealdean nekazaritzarako erabiltzen dena eta goialdean pinudiak dituena.

##### *70. artikulua. Baimendutako eraikinak.*

Nekazaritza erabilera tradizionala mantentzea proposatzen da, lurraren ustiapenari loturiko eraikinak baimenduz.

65. artikuluan erregulatutako eraikin guztiak baimenduko dira, artikuluko horreketan jasotako baldintzetan.

#### 2.2.3 ATALA. Mendi Larreetarako Zonari Buruzko Arauak

##### *71. artikulua. Aplikazio eremua.*

Mendi Larreetarako izendatu den zonak larre inguru garaiak hartzen ditu, Aloña mendilerroaren eta Orkatzategiren hegoaldeko mendi-hegaletan daudenak.

##### *72. artikulua. Baimendutako eraikinak.*

Egungo baldintzak mantentzea proposatzen da, larre erabilera mantenduz udako artzaintzarako.

Zona honetan bakar-bakarrik artzain bordak edo mendiko aterpeak, jabetza publikokoak, eraikitzea baimenduko da, baina 65. artikuluan definituriko baldintza orokorreari egokituta betiere.

Berariaz galarazita daude artikuluko horrek definitzen dituen beste eraikin guztiak; bereziki, etxebizitzak, granjak edo beste edozein motako instalazioak.

Isurketen kontua azpimarratuko da bereziki, eta borda edo aterpeen espezifikazioak araudi orokorrari egokitu beharko zaizkie.

#### 2.2.4 ATALA. Babes Bereziko Nekazaritza eta Abelazkuntzarako Zonari Buruzko Arauak



**Oñatiko Udala**

*73. artikulua. Aplikazio eremua.*

Babes Bereziko nekazaritza eta abelazkuntzarako izendatu den zonak, Arantzazu errekararen haranaren hondoa hartzen du, Araotzeko herrigunea barne. Egun duen iaera mantendu nahi da, bere nekazaritza eta baso erabilerari eutsiz.

*74. artikulua. Baimendutako eraikinak.*

65. artikuluan erregulatutako eraikin guztiak baimenduko dira, artikuluko horretan bertan jasotako baldintzetan betiere, honako hauek izan ezik: Interes publikoko zerbitzuak izan arren inguruan dauden baserri-auzuneen beharrekin zuzenean lotu gabekoak, eta granjak.

Arantzazuko harrobiaren ustiapena baimenduko da. Alabaina, ustiapenaren gehieneko mugak finkatu beharko dira. Horretarako, ingurumen eraginaren azterketa bat egin beharko da, gehieneko mugak ezarriz, errepidearen azkeneko egoera argituz, honek sortzen duen inpaktua zuzentzeko neurri zuzentzaileak azalduz eta sailen geroko erabilera eta azken egoera adieraziz. Azterketa hori Udalak berak egingo du, eta enpresa ustiatzaileak finantzatzeko, Arau hauek behin betiko onartzen direnetik hasi eta bi urteko epean.

**2.2.5 ATALA. Babes Bereziko Baso Erreserbarako Zonari Buruzko Arauak**

*75. artikulua. Aplikazio eremua.*

Babes Bereziko Baso Erreserbarako izendatu den zonak Araba eta Gipuzkoako lurraldeen arteko mugaldea hartzen du, udal barrutiaren hegoaldeko gailur eta mendilepoak bilduz, Elgea-Artia mendilerroan hain zuzen.

*76. artikulua. Baimendutako eraikinak.*

Gaur egun duen erabilera basogintza da batik bat, larre eta pagadi txikiak tartean direla. Arroaren goialdean dagoela-eta, egun dagoen bezala kontserbatzea proposatzen da, nolabaiteko zur ustiapen batez, baina arrasetiko mozketarik egiteke inolaz ere. Ustiapen horrek bertan diren espezieen kontserbaziora joko du.

Inguru honetan ez da onartuko araudi honetako 65. artikuluan aipatutako eraikuntza edo instalazio bat bera ere.

Bakar-bakarrik basogintzara emandakoak baimenduko dira, pistak irekitzea esate baterako (leherketak eskatzen dituen lurketarik egin behar ez bada behintzat), eta oro har produkzioarekin loturiko bestelakoak, Arau Orokorrek era honetako obretarako ezarritako baldintzetan.



## **DOCUMENTO NÚMERO IV**

**ARTÍCULOS O APARTADOS DE LOS MISMOS  
EN VIGOR QUE CONSTITUYEN EL OBJETO  
DE LA PRESENTE MODIFICACIÓN DE LAS  
NORMAS SUBSIDIARIAS MUNICIPALES DE  
OÑATI.**



**Artículo 11.** Normas generales de uso para Zonas y Sistemas Generales.

4. Régimen General de Uso de las Zonas y Sistemas Generales.  
Zona C-4. Zona Agropecuaria de Protección Especial.

-Usos predominantes:

- \*Usos agrícolas.
- \*Usos ganaderos.
- \*Usos forestales.
- \*Usos extractivos.

**Artículo 65.** *Tipos de actuaciones edificatorias.*

**14.** Usos extractivos (Cantera):

La implantación de los usos extractivos exigirá la correspondiente autorización previa a la solicitud de la licencia de los organismos competentes al respecto. A los efectos de la tramitación de esta, los usos extractivos se consideraran en todo caso como actividades sujetas a la Ley 3/1998 de 27 de febrero, General de Protección del Medio Ambiente del País Vasco, y de acuerdo con lo establecido por la legislación vigente deberán ser objeto de evaluación de impacto ambiental.

El proyecto de implantación de los usos extractivos, además de los que establezca la legislación sectorial aplicable, deberá cumplimentar las siguientes condiciones:

- Definirá el ámbito afectado por la extracción y el volumen de la misma, la forma en que esta se va a producir y la configuración final del territorio afectado.
- Definirá los productos a obtener y su área de comercialización, señalando los tramos viarios que se verán afectados de forma más intensa por el transporte de los mismos.
- Analizará la adecuada resolución de los problemas de drenaje de la explotación, asegurando que no se produzcan afecciones a los predios colindantes o a la red viaria pública - carreteras o caminos.
- Definirá las medidas a adoptar para la reducción del impacto ambiental de acuerdo con lo establecido por la correspondiente declaración de impacto, a lo largo del periodo de explotación -plantación de arbolado, mantenimiento y limpieza de la red viaria pública en el acceso a la explotación, reducción de las emisiones de polvo y residuos a límites aceptables, y otros- y para la recuperación final del territorio afectado.

Las condiciones urbanísticas aplicables a la explotación serán las siguientes:

- Respecto del acceso rodado, la parcela sobre la que se pretenda desarrollar la explotación deberá cumplimentar las condiciones respecto a la disposición de acceso rodado establecidas con carácter general en el artículo 43, considerándose a tal efecto la misma como un uso no rural.
- Parcela aportada mínima de 2,5 Has.
- Separaciones mínimas del límite de la explotación de 100 metros a edificaciones existentes de vivienda y otros usos no rurales, y de 20 metros al límite de parcela.

SECCIÓN 2.2.2. Normas para la Zona de Reserva Agropecuaria.

**Artículo 69.** *Ámbito de aplicación.*

La zona definida como de Reserva Agropecuaria comprende la cuenca del río Oñati, de uso agrícola en las zonas bajas del valle, y con plantación de pino en las cotas más altas.

**Artículo 70.** *Construcciones permitidas.*

Se propone el mantenimiento del uso agrícola tradicional, permitiendo construcciones ligadas a la explotación del suelo.

Se permiten todas las construcciones reguladas en el artículo 65 en las condiciones que este artículo establece.

SECCIÓN 2.2.4. Normas para la Zona Agropecuaria de Protección Especial.

**Artículo 73.** *Ámbito de aplicación.*

La zona definida como Agropecuaria de Protección Especial comprende el fondo del valle del río Arantzazu, incluyendo el asentamiento de Araoz. Se pretende la conservación de su carácter actual, de zona de utilización agrícola y forestal.

**Artículo 74.** *Edificaciones permitidas.*

Se permiten todas las edificaciones reguladas en el artículo 65, con las condiciones establecidas en dicho artículo, excepción hecha de los servicios de interés público no relacionados directamente con las necesidades de los barrios rurales que se encuentran en la zona, así como la instalación de granjas.



**Oñatiko Udala**

Se permite la explotación de la cantera de Arantzazu. Sin embargo deberán fijarse los límites máximos de explotación. Para ello deberá realizarse un estudio de impacto ambiental, que establezca el límite máximo, el estado final de la carretera, las medidas correctoras del impacto que esta produce, y el destino futuro de los terrenos y su estado final. Este estudio será realizado por el Ayuntamiento y financiado por la empresa explotadora, en el plazo de dos años desde la aprobación definitiva de estas Normas.



**Oñatiko Udala**

## **IV ZENBAKIKO AGIRIA**

**OÑATIKO ARAU ORDEZKOEN  
ALDAKETAREN XEDEA DIREN ETA  
INDARREAN DAUDEN ATAL EDOTA  
LERRAK.**



**11. artikulua. Zona eta sistema Orokorren erabilera arau orokorrak.**

4. Zona eta Sistema Orokorren erabilera erregimen orokorra.

C-4 Zona. Babes Bereziko Nekazaritza eta Abelazkuntzarako Eremua.

-Erabilera nagusiak:

\*Nekazaritza.

\*Abelazkuntza.

\*Basogintza.

\*Erauzketak.

**65. artikulua. Eraiketa motak.**

14. Erauzketak (Harrobia):

Erauzketa erabilerei ekin ahal izateko, gai honetan eskumena duten erakundeen baimena eskuratu beharko da lizentzia eskatu aurretik. Baimen hori tramitatzeari dagokionez, Euskal Herriko Ingurumena Babesteko Lege Orokorrari, otsailaren 27ko 3/1998 Legeari, lotutako jardueratzat hartuko dira erauzketak; eta, indarrean dagoen legerian xedatutakoari jarraituz, ingurumen eraginaren ebaluazio-azterketa egin beharko da.

Erauzketak ezartzeko proiektuak, aplika dakioken legeria sektorialak ezarritako betekizunaz gain, honako baldintza hauek bete beharko ditu:

- Erauzketaren eraginpeko esparrua, erauzketaren bolumena eta erauzketa gauzatzeko era definituko ditu; eta gainera, ukitutako lurraldeari geratuko zaion egitura adieraziko du.
- Zein produktu aterako diren eta produktu horiek non merkaturatuko diren zehaztuko du, horien garraioak gehien afektatuko dituen bide-zatiak adieraziz.
- Ustiapenaren drainatze arazoak konpontzeko sistemarik egokiena aztertuko du, ondoko finketan edota bide sare publikoan –errepideak edo bideak– kalterik ez dela eragingo ziurtatuko den moduan.
- Egindako ingurumen eraginaren aitorpenean ezarritakoarekin bat etorrituz, ustiapenak irauten duen bitartean ingurumen eragina arintzeko hartuko diren neurriak zehaztuko ditu –zuhaitz landaketa, ustiategiaren sarreran bide sare publikoa artatzeko eta garbi edukitzeko hartuko diren neurriak, hauts eta hondakin jaulkipenak gutxieneko muga onargarrietara murriztea eta abar–. Era berean, ukitutako eremua berreskuratzeko hartuko diren neurriak ere zehaztuko ditu.

Ustiategian honako hirigintza baldintzak bete beharko dira:



- Ustiapena garatuko den lurzatiak, ibilgailuen sarbideen eraketari buruz 43. artikuluan izaera orokorrez ezarritako baldintzak bete beharko ditu eta, ondorio horretarako, landaz bestelako erabileratzat hartuko da.
- Ekarpeneko lurzatiak 2,5 ha-ko azalera izango du gutxienez.
- Ustiapenaren mugatik hasita gutxienez 100 metroko tartea utziko da lehendik zutik dauden etxebizitzarako eraikinetara eta landakoak ez diren erabileretara; eta, 20 metroko tartea, lurzatiaren mugara.

#### 2.2.2 ATALA. Nekazaritza eta Abelazkuntza Erreserbarako Zonari Buruzko Arauak.

##### **69. artikulua.** *Aplikazio eremua.*

Nekazaritza eta abelazkuntza Erreserbarako izendatu den zonak, Oñati ibaiaren arroa hartzen du, ibarraren behealdean nekazaritzarako erabiltzen dena eta goialdean pinudiak dituena.

##### **70. artikulua.** *Baimendutako eraikinak.*

Nekazaritza erabilera tradizionala mantentzea proposatzen da, lurraren ustiapenari loturiko eraikinak baimenduz.

65. artikuluan erregulatutako eraikin guztiak baimenduko dira, artikuluko horretan jasotako baldintzetan.

#### 2.2.4 ATALA. Babes Bereziko Nekazaritza eta Abelazkuntzarako Zonari Buruzko Arauak.

##### **73. artikulua.** *Aplikazio eremua.*

Babes Bereziko nekazaritza eta abelazkuntzarako izendatu den zonak, Arantzazu erreka haranaren hondoa hartzen du, Araotzeko herrigunea barne. Egun duen izaera mantendu nahi da, bere nekazaritza eta baso erabilerari eutsiz.

##### **74. artikulua.** *Baimendutako eraikinak.*

65. artikuluan erregulatutako eraikin guztiak baimenduko dira, artikuluko horretan bertan jasotako baldintzetan betiere, honako hauek izan ezik: Interes publikoko zerbitzuak izan arren inguruan dauden baserri-auzuneen beharrekin zuzenean lotu gabekoak, eta granjak.



**Oñatiko Udala**

Arantzazuko harrobiaren ustiapena baimenduko da. Alabaina, ustiapenaren gehienezko mugak finkatu beharko dira. Horretarako, ingurumen eraginaren azterketa bat egin beharko da, gehieneko mugak ezarriz, errepidearen azkeneko egoera argituz, honek sortzen duen inpaktua zuzentzeko neurri zuzentzaileak azalduz eta sailen geroko erabilera eta azken egoera adieraziz. Azterketa hori Udalak berak egingo du, eta enpresa ustiatzaileak finantzatuko, Arau hauek behin betiko onartzen direnetik hasi eta bi urteko epean.



**Oñatiko Udala**

## **DOCUMENTO NÚMERO V**

**ARTÍCULOS O APARTADOS DE LOS MISMOS  
UNA VEZ MODIFICADOS.**



**Artículo 11.** Normas generales de uso para Zonas y Sistemas Generales.

4. Régimen General de Uso de las Zonas y Sistemas Generales.  
Zona C-4. Zona Agropecuaria de Protección Especial.

- Usos predominantes:

- \* Usos agrícolas.
- \* Usos ganaderos.
- \* Usos forestales.

**SE SUPRIMEN LOS USOS EXTRACTIVOS.**

**Artículo 65.** *Tipos de actuaciones edificatorias.*

**SE SUPRIME EL APARTADO 14.** Usos extractivos (Cantera):

**Artículo 74.** *Edificaciones permitidas.*

**EL ARTÍCULO 74 QUEDA CON LA SIGUIENTE REDACCIÓN:**

“Se permiten todas las edificaciones reguladas en el artículo 65, con las condiciones establecidas en dicho artículo, excepción hecha de los servicios de interés público no relacionados directamente con las necesidades de los barrios rurales que se encuentran en la zona, así como la instalación de granjas.

Se permite la explotación de la cantera de Arantzazu que se desarrollará única y exclusivamente dentro de los límites territoriales actuales y previstos en la documentación gráfica de estas Normas Subsidiarias Municipales de Planeamiento.”



**Oñatiko Udala**

## **V ZENBAKIKO AGIRIA**

**ATALAK EDOTA LERROAK BEHIN  
ALDATUTA GERATZEN DIREN BEZALA.**



Oñatiko Udala

**11. artikulua. Zona eta sistema Orokorren erabilera arau orokorrak.**

4. Zona eta Sistema Orokorren erabilera erregimen orokorra.

C-4 Zona. Babes Bereziko Nekazaritza eta Abelazkuntzarako Eremua.

- Erabilera nagusiak:

- \* Nekazaritza.
- \* Abelazkuntza.
- \* Basogintza.

**ERAUZKETA ERABILERAK EZABATZEN DIRA.**

**65. artikulua. Eraiketa motak.**

ARTIKULU HONEN 14 ATALA EZABATZEN DA: Erauzketak (Harrobia).

**74. artikulua. Baimendutako eraikinak.**

**74 ARTIKULUA HONAKO EDUKIAZ GELDITZEN DA:**

“65. artikuluan erregulatutako eraikin guztiak baimenduko dira, artikulua horretan bertan jasotako baldintzetan betiere, honako hauek izan ezik: Interes publikoko zerbitzuak izan arren inguruan dauden baserri-auzuneen beharrekin zuzenean lotu gabekoak, eta granjak.

Arantzazuko harrobiaren ustiapena baimentzen da, bakarrik eta eskusiboki gaur egungo lurralde mugen barne eta Udal Plangintzarako Arau Ordezko hauen agiri grafikoan ageri den mugaketaren barne garatuko dena.”